



Nik, M^a JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK,

EGIAZTATZEN DUT:

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2011ko uztailaren 26an eginiko bilkuran, besteak beste, honako Akordioa hartu zuela:

ERABAKI-PROPOSAMENA, 2009-2013 IX. LEGEGINTZALDIKO EGITASMO ETA JARDUERA ESANGURATSUEN EGUTEGIAREN URTEKO JARRAIPENA (2010EKO APIRILETIK 2011KO UZTAILERA ARTEKOA) EGITEKO DOKUMENTUA ONARTZEN DUENA.

2010eko apirilaren 13ko Erabakiaren bidez, 2009-2013 IX. Legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Gobernuak laurteko honetarako finkatutako jardunean nabarmenak, garrantzitsuak eta eragin handikoak direla-eta indartu egin behar diren plangintza-ekimenak eta egitasmoak biltzen ditu Egutegiak, Gobernuak susta ditzan eta bere baitan koordina ditzan. Alde horretatik, Gobernu Kontseiluaren 2009ko abenduaren 22ko Erabakiak xedatzen dituen baldintzetan onartu zen Egutegia. Hain zuzen ere, Egutegia prestatzeko prozedura eta egitasmo eta jarduera esanguratsuak identifikatzeko irizpideak finkatu zituen Gobernu Kontseiluaren 2009ko abenduaren 22ko Erabakiak.

Gobernu Kontseiluaren Erabakiak agintzen duenez, Jaurlaritzako sailek txosten bat bidali behar diote sei hilean behin Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian ezarritako konpromisoak zenbateraino bete diren eta, hala bada, gorabeherarik izan den azaltzeko.

Egutegiaren gaineko ikuspegiarekin bat dator konpromiso hori. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak Gobernuaren jardunaren barne-koherentzia indartzeko erabili ohi duen tresna da Egutegia, baita herritarrekin hartu duen konpromisoaren erreferentea ere, eta "dokumentu ireki eta dinamiko" bat da, legegintzaldian sortzen diren gorabeheretara egokitu daitekeena. Izan ere, legegintzaldian sortzen diren gorabeheren arabera, baliteke egitasmo eta jarduera esanguratsu jakin batzuk Egutegian sartu edo Egutegitik kanpo utzi behar izatea edo, hala badagokio, Egutegiaren edukia aldatu behar izatea.

Urtebete igaro da Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia onartu zenetik, eta ekimenei buruzko informazioa eskatu zaie haiek sustatu dituzten sailei, egitasmo eta jarduera esanguratsuak zer egoeratan dauden jakiteko.

Eskatutako dokumentuak bildu ondoren, egutegien jarraipena egiteko txosten bat prestatu behar du Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak. Hain zuzen, egitasmo eta jarduera esanguratsu bakoitza zer egoeratan dagoen jakiteko beharrezko informazioa bildu behar du txosten horrek, eta Gobernu Kontseiluak aztertu behar du.

Horrekin guztiarekin bat, sailek ekimenak zer egoeratan dauden jakinarazteko beharrezko informazioa eman dute: bai aurrez prestatutako ekimenei buruzkoa, bai hasiera batean onartutako egutegiaren barnean ez zeuden baina plangintzan sartzea proposatu dutenei buruzkoa.

Sailek egitasmo esanguratsuen egoerari buruz helarazitako informazioaren arabera, Gobernu Kontseiluak legegintzaldi honetarako hitzartutako 23 egitasmoetan hamar onartu ditu, bi (Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana, 2011-2015 eta Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Plana, 2011-2013) Gobernu Kontseiluari helarazi zaizkio, eta zortzi egitasmo bideratzeko izapideak atzeratu samar dabilta. Hiru egitasmo, berriz, bideratzen hasteko daude, legegintzaldi honen bigarren zatian bideratzekoak direla eta.

Sailek jarduera esanguratsuen egoerari buruz helarazitako informazioaren arabera, berriz, hitzartutako 53 jardueretan 35 amaituta daude edo garatzen ari dira, hamahiru jarduera hasieran eta pixka bat atzeratuta daude, bi jarduera (41.a, Osasun Publikoaren Euskal Agentzia sortzea, eta 50.a, Kulturako % 1a kudeatzea) geldiarazita daude, eta jarduera bat (30.a, EAEko Salgaien Garraio Multimodalerako Plan Estrategikoa) Egutegitik kanpo gelditu da. Bestalde, bi jarduera egutegian sartu dira: 52.a, Euskal Autonomia Erkidegoko Salgaien Errepideko Garraiorako Ekintza Plana, eta 53.a, Motibazio Politikoko Indarkeriak Eragindako Giza Eskubideen Urraketen Biktimen Arreta.

Azkenik, IX. Legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2010eko apirilaren 13ko Erabakiaren seigarren atalak xedatzen duena betez, Eusko Legebiltzarrari helaraziko zaio Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegiaren jarraipena egiteko dokumentu hau, gobernuaren jardunerako tresna baita, Eusko Jaurlaritzak kudeaketa kontrolatzeko eta gardena dela ziurtatzea bultzatzearekin hartutako konpromisoaren esparruan.

Horrenbestez, Lehendakartzaren proposamenez, eta aztertu ondoren, Gobernu Kontseiluak hauxe onartu du

ERABAKIA

Lehenengoa. 2009-2013 IX. Legegintzaldirako Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegiaren urteko jarraipena egiteko dokumentua onartzea, I. Eranskinak (2010eko apirilaren eta 2011ko ekainaren arteko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegiaren jarraipena egiteko txostenak) finkatzen dituen baldintzetan.

Bigarrena. Ekimen hauek Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegiaren barnean sartzea, jardueren artean:

52. "Euskal Autonomia Erkidegoko Salgaien Errepideko Garraiorako Ekintza Plana." (II. Eranskina).

53. "Motibazio Politikoko Indarkeriak Eragindako Giza Eskubideen Urraketen Biktimen Arreta." (II. Eranskina).

Hirugarrena. Ekimen hauek Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegitik kanpo uztea edo aldatzea.


a) Ekimen hau Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegitik kanpo uztea:

30. "EAEko Salgaien Garraio Multimodalerako Plan Estrategikoa."

b) Aldaketak onartzea Erabakiaren lehen atalean aipatutako jarraipen-txostenak finkatzen dituen baldintzetan.

Laugarrena. Erabakia eta eranskinak Eusko Legebiltzarrari helaraztea, gobernuaren jardunaren jarraipen egokia egin dezan, IX. Legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia onartzen duen 2010eko apirilaren 13ko Erabakiaren bidez Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoa betez."

Eta horrela jasota gera dadin eta beharrezko ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 28an, eta ohartarazten akordioa transkribatuta dagoen akta Jaurlaritzaren Kontseiluaren hurrengo bilkurara eramango dela, onartua izan dadin.





I. ERANSKINA

IX. LEGEGINTZALDIA

2010eko APIRILAREN ETA 2011ko UZTAILAREN ARTEKO EGITASMO ETA JARDUERA ESANGURATSUEN EGUTEGIAREN JARRAIPENA EGITEKO TXOSTENA

A) EUSKO JAURLARITZAREN EGITASMOEN EGUTEGIA.

1. LEHENDAKARITZA

1. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako EAEko V. Plana, 2010-2013.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 2. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2010/06/29.

c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

2. Bizikidetasun demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa, 2010-2011. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana Birformatzea, 2008-2011.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 2. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2010/06/08.

c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, 2015.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 3. hiruhilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: Plana prestatzen.

2. HERRIZAINGO SAILA

4. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ekintza Plana.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2011/06/07.

c) 2011ko uztaileko egoera: Martxan.

3. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5. Unibertsitate Plana, 2011-2014.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 3. hiruilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2011/06/07.

c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

6. Lanbide Heziketako EAeko III. Plana, 2011-2014.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2011/06/21.

c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

5. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

7. Berrikuntza Publikoko eta Administrazio Elektronikoko Plana, 2010-2013.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2011/05/31.

c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

6. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

8. Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea, 2010-2013 (Iehen, Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzako Gidaplana, 2010-2013).

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 3. hiruilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2010/12/28.

c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

9. Trenbideko Euskadi 20-20 Plana, tren eta tranbia bidezko garraiorako.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 3. hiruilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2012ko 1. hiruilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak prestatzen.

10. Mugikortasun Iraunkorraren Gidaplana. Estrategia komuna mugikortasunerako eta garraiorako – 2020 muga.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 3. hiruilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 3. hiruilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: oinarrizko ildo estrategikoei eta ekonomikoei buruzko txostena prestatzen.

7. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

11. Enpresa Lehiakortasuneko Plana, 2010-2013.

- a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 3. hiruilekoa.
- b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2010/07/27.
- c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

12. Euskadi Informazioaren Gizartean Plana, 2015.

- a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. hiruilekoa.
- b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 3. hiruilekoa.
- c) 2011ko uztaileko egoera: oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak prestatzen.

13. Euskadiko Energia Estrategia, 2020 (3E-2020).

- a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. hiruilekoa.
- b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 4. hiruilekoa.
- c) 2011ko uztaileko egoera: Plana prestatzen.

8. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

14. Enplegurako EAEko Estrategia, 2011-2013.

- a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. hiruilekoa.
- b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 4. hiruilekoa.
- c) 2011ko uztaileko egoera: Plana prestatzen.

15. Laneko Osasuneko eta Segurtasuneko EAEko II. Plan Estrategikoa, 2011-2014.

- a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruilekoa.
- b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2011/05/03.
- c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

16. Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana.

- a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 2. hiruilekoa.
- b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 3. hiruilekoa.
- c) 2011ko uztaileko egoera: Plana eta txostena prestatu ondoren, Gobernu Kontseiluari helarazten, onar dezan.

17. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, 2010-2014.

- a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruilekoa.
- b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2012ko 1. hiruilekoa.



c) 2011ko uztaileko egoera: Plana prestatzen.

18. Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Plana, 2011-2013.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 3. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 3. hiruhilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: Plana eta txostena prestatu ondoren, Gobernu Kontseiluari helarazten, onar dezan.

9. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

19. EAEko Osasun Plana, 2012-2020.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 4. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 4. hiruhilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: oinarritzko ildo estrategikoak eta ekonomikoak prestatzen.

10. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

20. Ingurumen Esparru Programa, 2011-2014.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartutako data: 2011/07/12.

c) 2011ko uztaileko egoera: martxan.

21. Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana, 2011-2020.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2012ko 3. hiruhilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: oinarritzko ildo estrategikoak eta ekonomikoak prestatzen.

22. EAEko Nekazaritzako Sektorearen Lehiakortasun Plana, 2010-2013.

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2012ko 4. hiruhilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: Plana prestatzen.

11. KULTURA SAILA

23. Herritarren Kontratua Kulturen Alde

a) Egitasmoen Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. hiruhilekoa.

b) Gobernu Kontseiluak onartzeko aurrez ikusitako data: 2011ko 4. hiruhilekoa.

c) 2011ko uztaileko egoera: Plana prestatzen.



B) JARDUERA ESANGURATSUEN EGUTEGIA

1. LEHENDAKARITZA

1. Gobernuko kideen eta EAeko Administraziooko goi-kargudunen Etika eta Gobernu Onaren Kodea.

Jarduera hau amaituta dago jadanik. Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2011/05/10ekoa, Etika eta Gobernu Onaren Kodea onartzen duena.

2. Eko-Euskadi, 2020.

Gobernu Kontseiluak 2020. urtea muga duen mugikortasunerako eta garraiorako estrategia komuna onartu zuen 2011ko uztailaren 5eko bileran. Aurrerantzean, garatu eta gauzatu egingo da, eta jarraipena egingo da. 2020an amaituko da prozesua.

3. IREKIA. Gardentasunari, Komunikazioari eta Parte-hartzeari Irekitako Gobernu Proiektua.

2010ean amaitu zen Proiektua diseinatzeko fasea. Orain, etengabe eta bete-betean garatzen ari dira Proiektua, eta 2013an amaituko da.

4. Politika publikoen ebaluazioa sustatzea, gobernantzako estrategia baten esparruan.

Jarduera hau Berrikuntza Publikoko eta Administrazio Elektronikoko Planaren ildo estrategikoetako bat da. Diseinatzen amaituta dago jadanik, eta garapen-fasean eta martxan dago. Administrazio honek gobernantzaren printzipio bat gauzatzeko duen borondatearen mugari bat izango da.

5. Kanpo Ekintzako Esparru Estrategikoa.

Jarduera hau epe luzean (2020rako) da martxan jartzekoa, eta, gaiarekin zerikusia duten sektoreekin eztabaidatu ondoren, diseinua amaitzen ari dira.

2. HERRIZAINGO SAILA

6. Euskadiko Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa.

2010eko ekainean onartu zen Plan Estrategikoa, eta martxan dago egun. 2014ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta, amaitzen denean, haren eraginkortasuna eta eragina ebaluatuko dira, hurrengo aldiko plangintza diseinatzen laguntzeko.

7. Ertzaintza Berrantolatze eta Modernizatzeko Plana (lehen, Herritarren Segurtasunerako Plan Estrategikoa eta haren zabalpena lurraldean).

Egoki iritzi zaio jarduera esanguratsu honen izena aldatzeari, haren edukietara eta helburuetara egokitzeko. Hain zuzen ere, gaur egun, kidego osoa antolatzea da Planaren gaia eta helburua, Herritarren Segurtasunerako Atala eta helburuak eta baliabideak lurraldean zabaltzeko prozesua antolatzea ez ezik.

2010eko abenduan onartu zen Plana, eta martxan dago egun. 2011ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta, amaitzen denean, haren eraginkortasuna eta eragina ebaluatuko dira, hurrengo aldiko plangintza diseinatzen laguntzeko.

8. Terrorismoaren biktimen aitortzea eta memoria zabaltzea eta sendotzea.

Jarduera hau diseinatuta dago jadanik, eta martxan dago erabat, udalak batez ere terrorismoaren biktimak aitortzeko eta haien memoria zabaltzeko ekitaldiak sustatzen ari baitira. Hartara, Eusko Jaurlaritzaren lehen tasun bat gauzatu da, haren programak aipatzen duen funtsezko helburuetako bat zera baita: "terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei eragindako kalte guztien memoria, aitortzea eta ordaina".

2011ren amaieran da bukatzekoa jarduera hau, eta, ondoren, ebaluatu egingo da.

9. Larrialdi-zerbitzuak hobetzea eta euskal herritarrei edozein larrialdi-egoeratan ematen zaien erantzuna optimizatzea, 2009-2013.

Jarduera hau diseinatuta dago jadanik, eta martxan dago erabat, larrialdi- eta meteorologia-zerbitzuak modernizatzeko. Horretarako, besteak beste, bitartekoak eta baliabideak berriz banatuko dira lurraldean, lana ahalik eta eraginkorrena izateko eta, hartara, herritarrei kalitate handiko zerbitzua ematen zaiela ziurtatzeko.

2013ren amaieran da bukatzekoa jarduera hau, eta, ondoren, ebaluatu egingo da.

10. Udaltzaingoen arteko koordinazioa hobetzea eta modernizatzea.

Jarduera hau diseinatuta dago jadanik, eta martxan dago erabat. Hauek ditu helburu nagusizat: Korporazioko uniformeen eta irudiaren alorrean koordinazioa bultzatzea, komunikazioen sare digitala finkatzea, existitzen diren jarduera-protokoloen kalitatea hobetzea, udaltzaingoetako funtzionarioen ibilbide profesionalak bultzatzea eta udaltzaingoen erregistro telematikoa lantzea.

2012ren amaieran da bukatzekoa jarduera hau, eta, ondoren, ebaluatu egingo da.

3. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

11. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sistema Integratua (Gaitasuna Egiartzatzeko Egitura).

Hasiera batean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jarduera zen hau, baina, egun, sail hori eta Enplegu eta Gizarte Galetako Saila ari dira jarduera garatzen, elkarlanean.

lido horretan, sail arteko batzorde bat sortzea da asmoa, hezkuntza- eta lan-gaien gaineko eskumena duten sailtako langileek neurri berean eraturakoa, Lanbide Heziketako Sistema Integratua martxan jartzeko eta, haren barnean, Gaitasuna Egiartzatzeko Egitura eratzeko, informalki aritu baita orain arte.

12. Arte-ikasketak sustatzea Euskadin.

Jarduera hau diseinatuta dago jadanik, eta martxan dago erabat. 2013aren amaieran da bukatzekoa, eta, ondoren, 2014ko lehen seihilekoan, ebaluatu egingo da.

13. Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituzten eta horiek EAEn finkatzen dituzten dekretuak aldaraztea.

Jarduera hau amaituta dago jadanik, eta dekretuak indarrean daude dagoeneko.

14. Eskola 2.0.

Egun, jarduera garatzen ari dira. Tarteko ebaluazioa egin da, eta ekipamendua erosteko sistema aldatu behar dela ikusi da, ikasleek ikasturte bakoitzaren hasieratik erabili ahal izan dezaten.

15. Modu esperimentalean, Hezkuntza Hirueledunaren Esparrua (HHE) martxan jartzea.

Egun, jarduera hau garatzen ari dira, eta 2012ko lehen seihilekoan tarteko ebaluazioa egitea da asmoa, jarduera martxan dagoen azken aldia bideratzeko.

16. EHUren Zientzia Parkea sortzea Leioan.

Garapen-fasearen hasieran dago proiektua, eta 2018ra arte iraungo du.



4. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

17. Kontu publikoak berronkatzea.

Jarduera honek funtsezko bi helburu ditu: neurritz gaineko defizita zuzentzea eta aurrekontuen egiturazko oreka lortzea epe ertainean (2013rako).

2010eko emaitzak ebaluatu dira. Emaitzen arabera, defizita jaitea lortu da —% 2,69ra jaitea zen helburua—. Gainera, zuzenketa-neurriei esker, jaitziera finkatutakoa baino handiagoa izan da, eta defizita % 2,37koa izan da azkenerako.

2011rako, berriz, defizita BPGren % 1,3koa izatea da helburua, SEC-95 sistemaren baldintzetan.

18. Euskadi Estrategia, 2010-2013.

Esparru estrategikoa diagnostikatzeko eta zehazteko fasea eta jarduera prestatzeko eta onartzeko fasea amaituta daude dagoeneko, eta, gaur egun, Estrategia garatzen ari dira. 2013aren amaierara arte iraungo du garapenak.

Hiru helburu ditu Euskadi Estrategiak: politika publikoen plangintza egiteko erreferentziatzeko esparru estrategikoa prestatzea, Eusko Jaurlaritzaren legegintzaldi honetarako ardatz eta helburu estrategikoak finkatzea eta aurrekontuaren epe ertaineko lehentasunak bideratzea.

2011ren amaieran tarteko ebaluazioa egitea da asmoa, eta, 2014ko lehen seihilekoan, azken ebaluazioa egitea.

19. EAEko Administrazioko administrazio-kontratazioaren sistema eta esleipenak egiten dituztenen botere multzoa eta euskal sektore publikoa eratzen duten enteak hobetzeko plana.

Egun, Plana prestatzen ari dira. 2011ko hirugarren hiruhilekoa da hura onartzeko muga.

2011n tarteko ebaluazioa egitea da asmoa, baina Planaren barnean etengabeko ebaluazioa egiteko sistema bat ezartzearen alde ere egin da.

5. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

20. Open Data Euskadi / EAEko Administrazio Orokorren datu publikoak irekitzea.

Funtsean, helburu hauek ditu jarduera honek:

- Infomedarioek berrerabiltzeko moduko edukiak ematea, eratorritako produktuak eskuratzeko moduan, eta, horrela, balio ekonomikoa eta soziala sortzea.

- Administrazioaren gardentasuna sustatzea.

- Administrazioen artean elkarrekiko eragiketak sustatzea, aplikazioak sor baititzakete beren eta Eusko Jaurlaritzaren beste datu batzuetatik abiatuz.

- Informazio-sistemen barne-antolamendua erraztea, datuak dokumentatzea eta abar sustatzeko.

Egun, jarduera garatzen ari dira. 2011ko apirilean, tarteko ebaluazioa egin da, eta emaitzak onak izan dira. 2014ko lehen seihilekoan expost ebaluazioa egitea da asmoa.

21. Software Librearen Bulego Teknikoa.

Hasiera batean, Bulegoa 2010ean zen martxan egotekoa, eta urte hartan jarri zen martxan. Hala ere, 2011ra arte luzatu da jarduera, software librearen erabilera sendotzeko, normalizatzeko eta sustatzeko.

2012ko lehen seihilekoan, prozesuaren expost ebaluazioa egingo da.

22. Espediente elektroniko birtuala ezartzea esparru judizialean.

Espediente elektroniko birtuala martxan egoteko epea 2014ra arte luzatzea da asmoa, jardueraren konplexutasuna dela medio. Izan ere, esperientzia pilotuak Donostiako lehen auzialdiko eta lan-arloko epaitegietan eman dituen emaitzak ikusirik, hasierako



planteamenduaren alderdi tekniko eta formal batzuk aldatu behar direla ikusi da. Horren ondorioz, proiektua berriz diseinatu da, eta 2014ra arte iraungo du.

Tarteko ebaluazio horretaz gain, beste batzuk egingo dira datozen urteetan eta, azkenean, expost ebaluazioa egingo da, 2015ean.

23. Euskadiko Justizia Administrazioan bulego judizial eta fiskal berriak antolatzeko plana ezartzea.

Egun, jarduera garatzen ari dira, eta 2014ra arte iraungo du garapenak. Izan ere, Botere Judizialaren ekainaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzeko lege organikoaren aurreproiektua aurkeztu da, auzialdiko auzitegiak sortzeko, eta, onartzen bada, eragin handia izan dezake bulego judizialen antolamenduan. Hori dela eta, hiriburuetan bulego judizialak ezartzeko plana atzeratzea erabaki da, araudiaren behin betiko edukiak zehaztu bitartean.

24. Bitartekaritza judizialeko zerbitzuak sustatzea.

Egun, jarduera garatzen ari dira. 2011ra arte luzatu da garapena, 2010eko esperientzia pilotua (lan-arloko jurisdikzioko bitartekaritza) Bizkaiko lan-arloko jurisdikzio osora zabaltzeko.

Bestalde, 2011ren hasieran egindako ebaluazioak adierazten duenez, bitartekaritza-zerbitzuei helarazitako auzien kopuruak gora egin du, baita beren auziak bitartekaritza-zerbitzuei helarazten dizkieten organo judizialen kopuruak ere.

6. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

25. Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna.

Jarduera hau amaituta dago, ituna sinatuta eta indarrean baitago jadanik, 2025era arte. Hala ere, dokumentuaren helburua da eragile ekonomiko eta sozial gehiago biltzea itunera.

Azkenean, Itunaren emaitza izan da lau erronka, hamabost ildo eta 87 jarduera zehaztea, 2010-2013 aldirako Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailean bildu eta dimentsionatu direnak —Gobernu Kontseiluak 2011eko abenduaren 28an onartu zuen Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea, 2010-2013—. Bestalde, oinarrizko alderdiak eta estrategiak Etxebizitzaren Legearen aurreproiektuan bildu dira, euskarriarena egin baitute.

Hauek dira hamabost urterako finkatutako erronkak:

1. Bizitegien merkaturan lurzorua eskuratzeko aukera gehiago izatea.
2. Etxebizitza babestuen parkea handitzea, alokairuko etxebizitzaren proportzioa handituz.
3. Eraikin gehiago berritzea eta hiriko espazioak berritzeko eta eraberritzeko programa estrategikoak zehaztea.
4. Erakundeen erantzukidetasuna hobetzea eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzea.

Tarteko ebaluazioa egingo da, eta 2011ko lehen seihilekoan amaituko da.

26. Etxebizitzaren alorreko sozietate-sarea berregituratzea.

Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoarekin bat egin aurretik, Alokabide SAren argitalpena kaleratu behar zen, eta, aurrez ikusten zenez, duela denbora gutxi amaitu da prozesua, 2011ko apirilean. Aurrerantzean, 2011ren amaieran, bat-egitea gauzatuko da, eta, horren ondorioz, errazagoa izango da etxebizitzaren alorreko sozietate-sarea kudeatzea eta etxebizitza-politikak kudeatzeko sinergiak sortuko dira.

27. Babes ofizialeko etxebizitzaren prezio-eredu berri bat martxan jartzea. Berme eta Kontentsazio Funtsa.

Gaur egun, jarduera garatzen ari dira. Etxebizitzaren Aldeko Gizarte Ituna eta Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea hitzartzeko prozesuetan lortutako feedbacka handitzeko, Funtsa bera eta hari buruzko araudia eztabaidatzen ari dira herritarrak, Irekia proiektuaren eta Etxebizitzaren parte hartzeko "Zurekin etxebizitza egiten dugu" plataformaren bitartez, baita etxebizitzaren alorreko eragileak ere, Etxebizitzaren Legearen aurreproiektuan parte hartzen ari baitira —egun, jendaurrean dago Etxebizitzaren Legearen aurreproiektua—.

28. Lurraldeko Garraio Agintaritzak eratzea Gipuzkoan eta Araban.

Gipuzkoako Lurraldeko Garraio Agintaritzak eratuta dago jadanik. Hain zuzen ere, 2011ko otsailean izan zen Batzar Nagusia eratze bilerara.

Arabako Lurraldeko Garraio Agintaritzak eratzeari dagokionez, berriz, jarduera diseinatzen ari dira gaur egun eta, zehazki, jarduera diseinatzeko beharrezko aurretiazko azterketak egiten ari dira.

29. Euskal Autonomia Erkidegoko Aireportu Plana.

2011 eta 2017 artean egongo da martxan Plana, eta, gaur egun, diagnostikoa diseinatzeko eta esparru estrategikoa zehazteko lehen urratsak egiten ari dira. Planaren helburu nagusia da euskal aireportu-sistemaren eraginkortasuna hobetzea, egoera ekonomikoa eta enplegua hobetzeko.

30. EAEko Salgaien Garraio Multimodalerako Plan Estrategikoa.

Tren eta tranbia bidezko garraiorako Trenbideko Euskadi 2020 Plana eta Euskal Autonomia Erkidegoko Salgaien Errepideko Garraiorako Ekintza Plana dira EAEko Salgaien Garraio Multimodalerako Plan Estrategikoaren xedapenak garatzekoak. Gainera, modu anitzeko garraioaren egungo egoera aztertuko dute horiek, eta hura sustatzeko jarduerak zehaztuko dituzte.

Bestalde, modu anitzeko garraioaren alderdi estrategikoak eta modu anitzeko garraiorako guneak kokatzeko lehenetsia duten lekuak bilduko ditu Modu Anitzeko Sarearen eta Sare Logistikoaren Lurraldearen Arloko Planak.

Horregatik guztiagatik, ez da beharrezkoa EAEko Salgaien Garraio Multimodalerako Plan Estrategikoa prestatzea.

31. Modu Anitzeko Sarearen eta Sare Logistikoaren Lurraldearen Arloko Plana.

2010 eta 2013 artekoa da Plana bideratzeko eta indarrean egoteko epea, eta, egun, diagnostikoa egiten eta esparru estrategikoa zehazten ari dira. Laster, Plana prestatzen hasiko dira, eta ondoren onartuko da Plana, 2011ren amaieran.

32. Gasteizko geltokia lurperatzeko proiektua garatzea.

Jarduera honen helburuek Gasteizen hiri-egitura errotik aldatzea dakarte. Izan ere, trenbide-saihesbide bat egingo da, lurpean erabat, egun okupatuta dauden lursailak berreskuratzeko, hiriko hegoaldearekiko harreman guztiak iragazteko eta, hala badagokio, hegoaldearen hiri-garapena bultzatzeko.

2010ean hasi zen jarduera hau. Orduan, 2010eko martxoaren 5ean, zenbait administraziok Gasteizko trenbidea lurperatzeko hitzarmen bat sinatu zuten. Ondoren, 2010eko abenduan, Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak, Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak sozietate kudeatzailea eratu zuten, proiektua sustatzeko eta gauzatzeko. Horrenbestez, jarduera hau martxan jarzea ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mende bakarrik.

33. Leioa-Unibertsitatea eta Barakaldo arteko tranbia.

Hauek dira jarduera honen helburuak:

- Eskari handia dagoen lekuetan taldeko garraio-zerbitzua sortzea.
- Milaka ikasleri Euskal Herriko Unibertsitateko campus garrantzitsuenera joaten laguntzea, denek erabiltzeko modukoa den taldeko garraio-zerbitzu publiko, eroso, iraunkor eta moderno baten bidez.
- Sektore publikoa eta pribatua elkarlanean aritzeko eta tranbia elkarrekin ustiatzeko formulak ezartzea.

Egun, 2011ko ekainean, proiektua diseinatzen amaitzen ari dira, eta, berehala, proiektua garatzeari eta martxan jartzeari ekingo zaio. 2011ko martxoan, berriz, Euskal Trenbide Sarearen bitartez, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak informazio-azterketaren aurrerapen bat prestatu zuten.

7. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

34. Euskal Merkataritza Egokitzeko Plana, 2015.

2010eko otsailean onartu zen Plana, eta haren helburu nagusia da tresnak eta politikak ematea, sektorea testuinguruaren aldaketetara egokitzeko. Hain zuzen ere, zerbitzuei buruzko Batasunaren Direktiba aplikatzearen ondorioz aldatu da testuingurua, haren helburuetako bat hau baita: zerbitzu-enpresek Batasunaren barruan kokatzeko askatasuna dutela bermatzea.

Gaur egun, Plana martxan dago erabat, eta 2015ean amaituko da.

Tarteko ebaluazioen eta ex post ebaluazioen bitartez emaitzak kudeatzeko eta ebaluatzeko eredu zehazten du Planak. Urtean behin, lehen lauhilekoan, urte bakoitzeko emaitzei buruzko txosten zehatz bat aurkeztu behar da Eusko Legebiltzarrean eta, tartean, aginte-taula bat aurkeztu behar da, urte bakoitzerako finkatutako helburuak biltzeko eta, hartara, zer desbideratze izan diren adierazteko, desbideratzeak zuzentzeko eta helburuak eta adierazleak berriz planteatzeko.

35. Turismo Lehiaren Plana, 2010/2013.

2010eko irailean onartu zen Plana, eta martxan dago erabat, turismoaren sektorean protagonista diren eragileen jardunerako gidalerroak finkatzeko, sektorearen lehiakortasuna areagotzeko eta hura sendotzeko eta benetako eragile ekonomiko bihurtzeko.

Horregatik, kontuan hartu zen sektorearen zeharkakotasuna, eta eragile guztiek (publikoek zein pribatuek) helmugetan eta industriaren etorkizunean elkarlanean aritzea bultzatu zen. Bestalde, Plana koherentea da, eta Sailaren enpresa-lehiakortasunari buruzko politikaren barnean (2010-2013 aldirako Enpresa Lehiakortasuneko Planaren barnean) dago.

Datorren urteko lehen hiruhilekoan, urteko ebaluazioari buruzko txosten bat egingo da, eta, 2014an, ex post ebaluazio-txosten bat.

36. Ibilgailu elektrikoa Euskadin zabaltzea.

Jarduera hau diseinatuta dago jadanik. Aurrez, jarduera diseinatzerakoan, inbertsio-plan bat eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ustiatzeko plan bat prestatu ziren. Egun, berriz, jarduera garatzen ari dira, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko sarea zabaltzen, baita fabrikatzaileak dinamizatzen eta lehen erabiltzaileak identifikatzen ere. Urtean behin, martxan jartzen diren jardueren eta haien emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egingo da.

37. Olatuen energiarekin esperimentatzeko eta hartzaileak erakusteko plataforma. Biscay Marine Energy Platform (Bimep).

Azpiegitura diseinatuta dago jadanik, eta, duela denbora gutxi, 2011ko maiatzaren 1ean, hura garatzen hasi ziren, beharrezko azpiegiturak eskaintzeko eta eraikitzeko. Ondoren, proba-aldia hasiko da, eta, gero, instalazioak martxan jarriko dira.

2012ra arte iraungo du jarduera honek. Orduan, olatuen energiarekin esperimentatzeko eta energia horren erabilera ikertzeko azpiegituren funtzionamendua ebaluatuko da, eta energia-ekoizpenaren emaitzak eta ratioak neurtuko dira, baliabide berriztagarriekin alderatuz.

8. ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

38. Enplegu politika aktiboak transferitzea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardunari ekitea.

Jarduera hau amaituta dago jadanik. 289/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Transferentzien Batzorde Mistoaren 2010eko urriaren 28ko Akordioa onartzen duena. Akordio horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen dituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak.

39. Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritza martxan jartzea.

Jarduera hau amaituta dago jadanik. Gizarte-zerbitzuen arloko goi-ikuskaritzari buruzko irailaren 14ko 238/2010 Dekretua aurrerapausoa izan da gizarte-zerbitzuen Euskadiko sistema berriaren funtsak sortzeko. Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko lankidetzeta eta koordinazioa antolatzeaz arduratuko den erakunde arteko organoarekin batera, sistemaren beste tresna garrantzitsu bat izango da, zerbitzuen zerrenda, Plan Estrategikoa, zerbitzuen mapa eta informazio-sistema bezala.



40. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Jarduera hau amaituta dago jadanik. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia 2010eko urrian jarri zen martxan, Zuzendaritza Kontseilua eratzeko bilduta. Hain zuzen ere, Agentziako erabaki-, administrazio- eta kontrol-organo gorena da Zuzendaritza Kontseilua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legeak xedatzen duenez.

Ondotik, azaroaren 23ko 310/2010 Dekretuak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiarazi ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren baliabide pertsonalak eta materialak agentzia horri atxikitzeko baldintzak arautu.

9. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

41. Osasun Publikoaren Euskal Agentzia sortzea.

Euskadiko osasun publikoaren Legearen aurreproiektuaren xedapenetako bat da EAEko osasun-sistema publikoa antolatzea. Hasiera batean, agentzia bat sortzea aztertu zen, baina, gaur egun, gaiari buruz hausnartzen ari dira, egungo baldintza ekonomikoen ondorioz.

42. Euskadiko Kronikotasun Estrategia.

Jarduera hau diseinatuta dago jadanik, eta, egun, garatzen ari dira, haren helburua lortzeko; alegia, gaixo kronikoak beren etxebizitzetan mantentzeko eta beharrik izan gabe ez ospitaleratzeko eta, aldi berean, haien bizi-kalitatea mantentzeko edo hobetzeko.

Izan ere, gaixotasun kronikoen gorakadari aurre egiteko, beharrezkoa da zaindu eta sendatu egiten duen sistema batek betiko osasun-sistema osa dezan; hain zuzen ere, betiko osasun-sistema osatzen duen sistemak bizitza osoan zaindu behar du eta, gainera, gaixoak ez ditu ospitaleratu behar premiarik ez badago eta kostuak murriztu behar ditu.

43. Eraginkortasun Alderatuaren Unitatea sortzea (lehen, Eraginkortasun Alderatuaren Agentzia sortzea).

2009an, 2010ean organo independente bat (Eraginkortasun Alderatuaren Agentzia) sortzeko eskatu zion Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari, osasun-sistema publikoaren barnean zer prestazio sar daitezkeen proposatzeko, osasun-eskaintza berrantolatzeari buruz aholkatzeko eta baliabide publikoak ahalik eta hobekien erabiltzeko.

Egungo egoera sozioekonomikoaren ondorioz, Lehendakariak administrazio-egitura berri gehiegi ez sortzeko emandako arauak betez, jarduera hau egokitu egin da, eta lehendik zegoen administrazio-egituraren barnean sartu da zerbitzua; alegia, ez da sortu beste administrazio-entitate edo -organorik.

44. Euskal osasun publikoaren alorreko gobernu onaren kode bat lantzea.

Dokumentua diseinatuta dago jadanik, baina horretarako prozesua zaila izan da. Izan ere, Gobernu Onerako Aholku Batzordea eratu zen Sailaren barnean, Kodea diseinatzeko eta idazteko, herritarrek parte hartzeko prozesu baten esparruan. 2011ko martxoan, Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkeztu zen testua, eta hark zenbait gomendio eman zituen.

Egun, dokumentua ezagutarazten ari dira, eta, prozesu horren amaieran, Kodea osa dezaketela jotzen den gomendioak ezarriko dira.

45. Jardun klinikoaren segurtasuna hobetzea.

Jarduera honen helburu nagusia da gaixoen segurtasunarekin uztartuta dauden eta kalte larria edo neurrizkoa dakarten 10.000 gertaera kaltegarri gutxiago jazotzea saihegarriztat jotzen direnen artean. Hau da, lehen fasean, gertaera kaltegarriak gutxiagotzeko kanpaina osoaren helburutzat finkatu den gertaera kopuruaren % 20 ez jazotzeko ekimena bideratu behar da.

Diseinua amaituta, 2010eko urrian hasi zen kanpaina, eta, egun, garatzen ari dira. Laster ebaluatuko da lehen aldiz.

10. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

46. Informazio Hidrologikoari buruzko Sistema Automatikoa (Saih) eta Erabakitzen Laguntzeko Sistema (Sad) ezartzea.

Jarduera honen helburua da datu hidrologikoak biltzeko eta kudeatzeko azpiegiturak eta horiek aztertzeko tresnak garatzea, alerta goiztiarrak eta muturreko hidrologiako gertaeren ondoriozko kalteak saihesteko edota murrizteko estrategiak ezartzeko.

Ildo horretan, protokolo bat egin da Herrizaingo Sailarekin elkarlanean, uholdeak izateko arriskua kudeatzeko, eta iragarpen hidrometeorologikoak egiteko ereduak hobetzeko, alerta goiztiarrak ezartzeko eta kudeatzeko eta datuak biltzeko azpiegiturak instalatzeko prozesuak jarri dira martxan. Ondoren, datuak kontrolatzeko eta kudeatzeko eta denbora errealeko datuak biltzeko zentro bat sortuko da.

47. Nekazaritzaren eta elikaduraren euskal sektorea sustatzeko eta hari balioa emateko kanpaina.

Jarduera honen helburua da euskal gizarteari ezagutaraztea zer-nolako eginkizuna betetzen duen egiaz nekazaritzako elikaduraren sektoreak eta zer-nolako kanpo-eragin positiboa duen. Hori dela eta, kanpaina iraunkor bat jarri da martxan, euskal gizarte osoa sektorearen izaera estrategikoaren inguruan eta sektoreari esker lortzen ditugun ondasun publikoen eta mozkin sozioekonomikoen inguruan sentsibilizatzeko.

Lehenik, kanpaina hedabideetan ezagutarazi da, eta, egun, garatzen ari dira. Gainera, kanpaina osatzeko, zenbait euskarritan (tartean, idatzizko prentsan) iragarkiak argitaratzea da asmoa.

48. Nekazaritzako, Elikadurako eta Arrantzako Prezioen Euskadiko Behatokia.

Nekazaritzako, elikadurako eta arrantzako produktuen prezioen behatokia sortzea berriazko helburu bat zen hauteskunde-programaren V. kapituluaren ("Herrialdea modernizatzea" izenekoaren) barnean, nekazaritzaren eta basoen sektorea bultzatzearen esparruan, eta EAEko elikaduraren kate osoa ezagutzea eta kontrolatzea zuen xede.

Gaur egun, behatokia bideratzen ari dira, behatokian esku hartzen duten sailen parte-hartzea eta beharrezko koordinazio-mekanismoak diseinatzen. Bestalde, jarduera berraztertzen ari dira, egungo egoera sozioekonomikora egokitzeko.

11. KULTURA SAILA

49. Sorkuntza-lantegiak.

Hiru lan-ildo nagusik osatzen dute jarduera hau: sortzaileei laguntzeak, sorkuntza-lantegiak abian jartzeak edota finkatzeak eta sormen-esperientzien sarea sortzeak. Helburua da talentua eta emankortasuna modu berritzailean aplikatzen duten arte-adierazpenak babestea, kultura-mundua eta gizarte harremanetan jartzeko eta artearen esparrua zein zientzia aplikatuen, enpresaren, industriaren eta gizarte-arazoaren esparrua eraldatzeko. Gaur egun, jarduera garatzen ari dira.

50. Kulturako % 1a kudeatzea.

Jarduera hau atzeratu egin da, Gobernu Kontseiluak uste duelako egungo egoera ekonomikoa ez dela aproposa herri-lanak egiten dituzten Eusko Jaurlaritzako sailei planteatzeko diru-sailak handitu ditzaten kultur proiektuak finantzatzeko (alegia, kulturako % 1a aplika dezaten). Hau da, jarduera hau bertan behera geratu da egoera ekonomikoa hobetu artean.

51. Kirol-azpiegiturak eta -planak sustatzea.

Bi ildok osatzen dute jarduera hau:

- Faturako Kirol Teknikazio Zentroa bultzatzeak, goi-mailako kirolaren eta olinpismoaren erreferentzia baita Euskadin —kirolarien egoitza martxan dago jadanik—.

- Bizikletaren estrategia integrala bultzatzeak, EAEko erabilera areagotzeko. Basque Trail proiektua da estrategia horren zertzea, eta harrera ona izan du sailen eta gizarte-eragileen artean.



II. ERANSKINA

JARDUERA ESANGURATSUAK (Egutegiko jarduera berriak)

52. Euskal Autonomia Erkidegoko Salgaien Errepideko Garraiorako Ekintza Plana.

1. HELBURUAK.

Hauek dira jarduera honen helburuak:

- EAEko salgaien garraioaren (bereziki, errepidekoaren) azkenaldiko bilakaera, egungo egoera, esparru ekonomikoa eta eskakizunak zein diren jakitea.
- Euskadiko salgaien garraioaren (bereziki, errepidekoaren) egungo egoeraren analisi estrategikoa egitea.
- Sortu nahi dugun planak ardatz izan behar dituen estrategiak aukeratzea eta gaiak eta esparruak garatzea.
- Planaren gaien esparruko jarduera zehatzak definitzea. Ondoren, jarduera horiek aukeratu eta hierarkizatu behar dira, sektorearen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko, hura areago modernizatzeko, prestakuntza-maila handitzeko, modu anitzeko garraioa sustatzeko....

2. AURREKARIAK.

2000. urtean, salgaien errepideko garraioa antolatzeko plan bat prestatu zen. Orain, berriz, plana egungo eta etorkizuneko egoerara egokitzea da asmoa.

2002ko azaroaren 19an, Gobernu Kontseiluak Garraio Iraunkorraren Euskadiko Gidaplana onartu zuen. Haren helburuen, estrategien eta lan-ildoen artean, 2000ko planarenak zeuden, eta etorkizunean egiten den Mugikortasun Iraunkorraren Gidaplanak ere kontuan hartuko ditu horiek guztiak.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMENEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Funtsean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta, ordezeko modura, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila; Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian

Sailaren ekimenez sortu da Plana, eta ez du inongo araudirik behar.

b) Antolamenduan

Planak ez du izango inolako eraginik antolamenduan.

c) Aurrekontuan eta finantzetan

Salgaien modu anitzeko garraioa sustatzeko jarduera zehatzen arabera, baliteke, aurrekontuaz gain, Planak finantzazio berria edo osagarria behar izatea.

Organo sustatzailearen ohiko aurrekontuarekin gauzatuko da Plana.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuetan)

e) Erakunde arteko harremanetan

Hiru lurralde historikoetako foru-aldundiak eta udalek Plana prestatzen parte hartuko dute.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREZ IKUSITAKO EPEA

Plana muga gabe egongo da indarrean.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK ELKARLANEAN ARITZEKO METODOLOGIA

Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, foru-aldundiak eta udalak Plana prestatzen parte hartzekoak dira, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Salgaien Garraio Atalaren bitartez.

7. GIZARTE-ERAGILEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA ESANGURATSUAREN BIDERATZEAN ETA GAUZATZEAN

Salgaien EAEko garraio-sektorea Plana prestatzen parte hartzekoa da, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Salgaien Garraio Atalaren bitartez.

8. JARDUERA ESANGURATSUA EZAGUTARAZTEKO ESPARRUA

Komunikazio-kanpaina publikoak, baliabide telematikoak, Plana aurkezteko jardunaldi publikoak, Planaren eragina nabarituko duten gizarteko sektoreentzako berariazko jakinarazpenak, hitzaldiak eta ikastaroak, argitalpenak, hedabide orokorrak... erabiliko dira.

Bestalde, Euskadiko Garraio Agintaritzaren eta Euskadiko Garraio Behatokiaren (EUSGABEren) bitartez eta haien webguneen bitartez ezagutaraziko da Plana.

53. Motibazio Politikoko Indarkeriak Eragindako Giza Eskubideen Urraketen Biktimen Arreta.

1. HELBURUAK.

Hauek dira jarduera honen helburuak:

- Biktima horiek aitortzeko neurriak eta jarduerak martxan jartzea.
- Biktimen sufrimendua eta haren askotariko ondorioak konpontzeko neurriak hartzea. Horretarako, arauzko neurri zehatzak hartu behar dira, eta, horien artean, lehenik eta behin, biktimentzako laguntzak eta haien hartzeko irizpideak arautzeko dekretua edo dekretuak.

2. AURREKARIAK.

2009ko abenduaren 22an, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak legez besteko proposamen bat onartu zuen, aho batez: Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako Zuzendaritzari eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari eskatzea "Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena" jarraitzeko. Txosten horrek aztertu behar zuen zernolako sufrimendu bidegabearagin duten Euskadin azken hamarkadetan indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketek, ordura arte ez baitzen kontuan hartu, eta, hartara, aurrera egin behar zuen motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimak ere aintzat hartzeko bidean. Era berean, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak biktima horiei ordaina emateko lehenengo neurriak proposatzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari.

2011ko otsailaren 25ean, berriz, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Aralar, Talde Mistoa – Eusko Alkartasuna eta Talde Mistoa – Ezker Batua Berdeak parlamentu-taldeek legez besteko proposamen bat sinatu zuten, txostenaren gomendioak eta taldeen ekarpenak erabaki parlamentario batean bildu beharko lirakeela adierazteko; hain zuzen ere, etorkizunerako bide-orria izango zen erabaki hori.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMENEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Justizia eta Herri Administrazio Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian

Arauzko neurri zehatzak hartu behar dira, eta, horien artean, lehenik eta behin, biktimentzako laguntzak eta haiek hartzeko irizpideak arautzeko dekretua edo dekretuak.

b) Antolamenduan

Jarduera hau garatzeko beharrezko egitura eta baliabideak prestatu behar dira.

c) Aurrekontuan eta finantzetan

180.000€.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuetan)

e) Erakunde arteko harremanetan

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREZ IKUSITAKO EPEA.

2011-2013 aldia.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK ELKARLANEAN ARITZEKO METODOLOGIA.

- Biktimekin harremanetan jartzeko agenda sortzea.
- Biktimei ordaina emateko dekretua edo dekretuak garatzea.
- Dekretuak aplikatzearen ondorioz egin behar diren izapideak kudeatzea.

7. GIZARTE-ERAGILEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA ESANGURATSUAREN BIDERATZEAN ETA GAUZATZEAN.

Giza eskubideen alorrean lan egiten duten gizarte-erakundeak, dekretuen zirriborroak prestatu ondoren, eta biktimekin lan egin izan duten eragileak.

8. JARDUERA ESANGURATSUA EZAGUTARAZTEKO ESPARRUA.

Eusko Legebiltzarra, gizarte zibila (bereziki, biktimen elkarteak) eta herritarrak.